

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

134n. Zenbakia Urrilla
1989



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



ARALAR MENDIAN
MIKEL DEUNA ZAINDARI
ALTARAKO OLTZA EDERREAN
ANDRA MARIA TA SANTUAK
BITXI EDERREZ APAINDURIK

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

1989 - 90 IKASTURTEA

OGEITABIGARRENA

BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

**EGUNAK: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN
EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN**

ORDUAK: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

ORDAÑA: 10.000 pezeta

IZENA EMOTEKO-TOKIA: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2

BILBO.

URRUTIZKIÑA 423.53.22

22.⁰ CURSO DE EUSKERA BIZKAINO. 3 NIVELES Y CONVERSACION

DIAS: LUNES, MIERCOLES Y VIERNES

O MARTES Y JUEVES

HORAS: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

CURSO COMPLETO: 10.000 pesetas

INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.

TELEFONO 423.53.22



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**

IPUIN-SARIKETA

(BILBOA'KO UDALAREN BABESPEAN)

IDAZKETAINDARTZEN

EUSKERAZALEAK urtero eratzten dogun ipuin-sariketa eta aurten be idazkin onegaz zabaltzen dogu sariketarako deia.

Elburu bi eta biak alkarragaz zer-ikusia daukenak, izaten doguz dei au zabaltzen dogunean.

Lenengo elburua idazterako zaletasuna sortzea. Gure lenagoko euskaldunak, egunerik egunera eriotzeak daroazkuzan euskaldunak, idatzi egiten eben, ainbatek aldizkari onetan be, baiña bizitzearen legeak eskatzen dauan lez, joan egiten jakuz eta euren lan-lekuak beteteko idazle barriak bear doguz. Orregaitik zabaltzen dogu dei au.

Eta bigarren elburua irakurleak ugaritzea da. Au gitxiago agertzen da baiña ba-dakigu irakurleentzat idazmotarik atseginenatarikoa dirala ipuiñak, batez be euskera erreza daukenak eta ipuiñaren barruan ardurabi-dea edo (suspense) daukenak.

IPUIÑETARA ZALETASUNA

Bear ba'da gure adimenari dagokiona eta lurralde guztietakoa izango da ipuin-zaletasuna, baiña Euskalerrian beintzat, bal umeen artean eta ez gitxiago nagusien artean, ipuiñetarako zaletasun aundia agertzen da.

Ipuiñak mota askotakoak izan daitekez eta gauza egokia litzake gure Errian zeintzuk izaten diran atsegin-garrien jakitea. Bear ba'da zabalen dabilztenak, eta atsegin-garrien diralako izan leiteke ori, mitoloji-girokoak dira, baiña ez beti edestu diran ipuiñak, bardin-bardin, ori gogaikarri gertatzea ba-leiteke, oiñean mitolojia dala asmakizun barriak diranak baiño. Onetan eredu lez igazko sariketan nagusi urten zana jarri geinke: Aitor eta bere semeak oiñarri lez artuta, zazpi eskualdeai buruz gauza gogoangarriak esaten dauz gure Iñaki Goikoetxea'k.

GURE SARIKETAK

Sariketarako deiak ondoren ona lortu dau, egia esan ontasunean ondoren ohea ugaritasunean baiño.

Urtero egiten dogun dei oneri erantzuten jarraituko al dabe gure irakurleak. Beti izaten dira idazle barriren batzuk eta aurten be barriren bat etorriko dala uste dogu.

Batzutan barriak lenengo saria lortzen ez dabenean, biozkatu egiten dira eta tamalgarria da ori. Iraupena bear da. Saria irabazten dabena, ostera, sarritan geiago ez dira agertzen. Idazten jarraitu bear leukeela uste dogu. Gure aldizkariak pozik artuko dauz euren lanak eta euskera indartzen lan ederra egingo dabe. Kendu ba nagikeria eta idatzi.

GAMIZ'ek

IPUIN-SARIKETA

(BILBOA'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

—Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

—Ipuiñak asmaurikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

—Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabena ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabena be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

— Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larreategi 14.2. ' eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterrillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

— Sariak lau izango dira:

- 1.ª 40.000 pezeta
- 2.ª 30.000 pezeta
- 3.ª 20.000 pezeta
- 4.ª 10.000 pezeta

—Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

BIZKAI'KO EUSKEREAREN ASTEA (V)

(BILBOA'KO UDALAREN BABESPEAN)

ZERGAIK BIZKAIKO EUSKEREARENA

Izen ori ipiñi dautsagu edo ipinten jarraitzen dogu aste oneri eta ez asteko gai guztiak zuzen-zuzenean euskereari buruz diralako. Izkuntza ikasten danean, inguru be kontuan euki bear izaten da, "metalinguismoa", eta orregaitik uste dogu izen egokia dala.

Gaiñera ba-dago beste zio bat izen ori ezarteko: Berlaldiak geienak, orain arte guztiak uste dot, Bizkai'ko euskeraz azaldu dirala. Dana dala, gaiaren arloan jakituna izan ezker, ez geunke izango ezelako eragospenik gipuzkoeraz itz egiten dauanen bat artzeko.

* * *

BOSTGARRENEZ

Bear ba'da, aste oneik iragarri genduzanean geuk be ez genduan uste izango ainbeste urtetan iraungo ebe-nik. Ez da izaten gauza erreza olako aste bat eratzea.

Egia esan urte guztietan, jarraian ezin eratu izan doguz, batez be diru-arazoakaitik, baiña eldu gara bostgairan aste au eratzer eta ez da gitxi.

Eskolapioen Ikastetxean izaten da beti, eta lekaide onei geure esker ona agertzen dautsegu laguntza au eskintzen dauskuelako.

Entzuleak, barrogei inguru. Batzuren ustez gitxi dira Bilbao guztirako, beste batzurentzat oster ez dira ain gitxi, gure erritarrak zeregiñez beterik eta arduratsu bizi diralako.

*

IZLARIAK

Orain-artean izlari onak etorri jakuz aste onetara.

Ordubete inguruan gaiak sakon, zeatz, argi ta garbi agertzeko gai izan diran izlariak eta gaiñera euskera ederra ta garbia erabilli dabenak.

Aurrerantzean be ba-daukagu itxaropena arlo onetan.

ARGITARATU

Olako itzaldietara joango leitekezanak baiña ezin dabenak asko dira gure artean eta batzuk eskatu be egiten dabe berbaldiak argitaratzea, irakurteko aukerea beintzat eukiteko.

Orrez gaiñera aztertu diran gaiak euskal-jakintzara oso-osoan sartu daitezcan bide bat izaten da itzaldiak argitaratzea.

Guk ZER geure aldizkaria daukagun ezker, pozik argitaratzen doguz itzaldiak, zori txarrez batzutan ezin izan dogu ori egin, izlariak idatzi barik ekarri daualako edo gero bere lana aurkeztu ez daualako, baiña oso gitxi izan dira.

Izlariak berak be, uste dot, pozik ikusten dauala bere lana argitaratuta.

AURTENGOA

Aurtego Bizkaierearen astea gertatzen diardugu orain. Gaiak aurkeztu doguz eta oneixek izan dira:

- Bertsogintza.
- Gure foruen gaiak.
- Basetxeen erakundea.
- Errotak euskalerrian.
- Antxiñako euskaldunen egun aundiak.
- Iztegiak euskeraz.
- Euskerea ta erderakadak Bilbao'n.
- Osasuna ta euskaldunak.
- Perretxikoak.
- Landarak.

Gai oneik eta asmau leikezan beste batzuk kontuan artuta eratuko dogu ba aurtengo Astea eta emen ZER aldizkariak agertzen doguz Izlariak eta gai aukeratuak. Aste au azillaren 20'tik 24'ta izango da baiña ZER onetan gauzea zeatzago.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

*

BOST BILBOTARRAK

Jaietan poz-emoille izan dira.

Nik ez nebazan ezagutzen eta nik lez beste askok be ez dabez ezagutu orain-arte. Baiña ezagutu-bearrekoak dira.

193Tan atzerriratuak izan ziran, Euzkadi Franco'ren aurka egoala eta arrezkero ez dabe entzute aundirik izan, baiña bagillaren 11'an Euba'ko Lauaxeta Ikastolak eratu eban jaira ekarri ebazan.



NORTZUK DIRAN

ZER gure aldizkari onetan eurai buruz zerbait idazteko, eurai itaundu edo euren barriak jakinbearra izan dogu eta ona emen ondorena:

— Bost Bilbo'tarrak ez dira oraintsu sorturiko talde bat.

— Orain 43 urte dirala, lanean ziarduen.

— Euren balioa isillean egon da beti, sarritan jazoten dan lez.

Gure bost Bilbo' tar oneik gizon apal eta zintzoak dira. Euretarik iñor ez da izan iñoz politikari. Euren Bilbao, Bizkaia eta Euzkadi maite dabez biotz osoagaz eta zintzotasunez beterik.

ABESTIAK

Eresi edo abesti sorta ugaria dauke eta ondo-be ondo ikasita, oraingo trebetasunaz erabilteko.

Abestirik geienak euskeraz abesten dabez eta euren abesti-sorta aberastuta dauke Urrengoetxea musikalaria-riaren eta Amiano'ren "Estampas Bilbainas"en datozen abestiakaz, soiñua ta itzak gaurkotuta, egokituta eta euren eginda.

Ez jakez peitzen euren abesti-sorta orretan beste abesti euskotar eta "zortziko" asko be, esaterako Iparragirre'ren "Iru Damatxu Donostia'ko" oso ezaguna.

ERES-GAILLUAK

Iru doiñu joiki edo tresna eder eta zaratatsuak dara-

billez abestiai laguntzeko: Auspo-soiñu edo akordeoi aundi dizdiratsu ederra joten dau soiñulari sendokote, bizkor, trebe eta ondo ikasi batek, Bizkaian ospetsu dan Loroño'ren auspo-soiñu eskolakoa, eta kitarrea, atabaltxua, durundu sakona ateraten daben bateri-tresna tximis-girokoak.

GORAGARRIAK

Zintzoro diñot. Nire ustez udabarrian, epail, jorrail eta orril inguruan ainbeste laterri sartzen diran Europa'ko Urrutikuskiñean izaten dan sariketara agertuko ba'litzaz, gure Bost Bilbotarrok garaitza lortzetik urrin ez litzakezala ibilliko.

Ara zer diñoen zabalkunde orrian:

Eresa
Jakintzaren muiña da.
Jakintza
erria da, erriaren bizia.

Erria,
abestien sortzaille ta emoille
gizaldirik gizaldira
bere olerkariak eta bertsolariak
bide dirala.

Orretarako
"Bost Bilbotarrak"
Erri-eresian egiten dabe lan,
iraunkor eta betiko izan daiten
gure jaien bizkortzaille.

Zazpi LP argitaratu dabez. Azkenengoa "Gernika. Bonbaketaren 50 urte-urrena" (37-4-26... 87-4-26).

LETONA'k

EUZKALDUN APAIZAK

LENAGO

EUZKALDUN APAIZAK! Euren erriaren aintza. Biotza pozez dogula dasakegu au. Euzkaldun apaizak euren erria maite-maite eben eta dabe ta erriak be maite-maite ebezan eta dabez euren apaizak, bai abadeak eta bai pralleak.

Mundu guztiko eleiz-gizonetan aurrerapen andia oartu da azkeneko urteotan. Beste onenbeste esan bear euzkaldun apaizai buruz be. Euzkalerriak beti euki dauz apaiz onak, langilleak, erri-maitaleak.

Ez ziran agertuko bear bada lenengo maillatan jakintza-gaietan lengo gure apaizak, ez abadeak, ez pralleak. Beste errietan be ez.

Orduan ez zan Seminariorik. Apaiz izan gura ebenak ez euen alako toki berezirik, apartekorik ikastaroak egiteko. Ba-ziran orraitio erri batzuetan apaiz izan gura eben gazteai irakasten eutsen apaizak. Durangon, Zornotzan, Galdakon eta beste toki batzuetan. Latin eta beste ikastaro batzuk egiezan eta kito. Ez zan ba osoa gaur lez euren gertasuna; alan be lan onuratsua egien errietan.

ASPALDION

Aspaldi baten ostera aldakuntza andia ikusi da onetan. Seminario eder, andi ta egokiak daukoz gaur Euzkadik, bai Bizkaian, bai Araban, bai Gipuzkoan eta bai Napparroan.

Irakasleak be oso gertatuak ainbat gaitan.

Gure apaizak, gure apaiz gazteak, bai abadeak, bai pralleak, beste edozein laterritakoakaz neurtu leitekez edozein jakintza-gaietan. Ez da geiegi esateko. Egia, egi utsa baiño.

Ainbat Unibersidadeetan ikusiko dira gure apaizak euren eteiz-barrutian egindako ikastaldiak osotzen. Eta gero ainbat Unibersidadetan, Ikastetxe Nagusietan-da irakasle ta zuzendari. Irakaste bikaiñak, idazle trebeak, izlari argiak aurkituko dozuz an-or gure apaizen artean.

GIZARTE-ARAZOETAN

Baiña gizarte-azian agertu izan dira beti lenengo maillatan. Aita Santu Juan XXII^{garrenak} bere MATER ET MAGISTRA ta PACEM IN TERRIS enziklikak argitaldu aurretik be, ainbat pentsaera eder, ainbat iritxi bikain agertu ebezan gure apaizak, bai agoz eta bai idatziz.

Beti be oroigarri izango da orain urte batzuk dirala Batikanora bialdu eben idazkia naiza goietako askok eta askok birao lez artu, batez be Españan.

Pentsaera ta erabagi sakon-mamintsuak agiri dira idazlan zoragarri orretan gizarte —aizia azaltzeko ta erabagitzeko.

ALDI LARRIA

Españan 1936^{garren} urtean sortu zan guda ondo ta argi erakutsi eban gure erriak eurekanako leialtasuna ta maitasuna.

Alderik geienetan ostera euren aurka jagi ziran. Gure errian be bai zoritzarrez, naiza gitxienak.

Lerrock idazten dauzana atzerrian, amerika-Iurraldean, ain zuzen Kolombian, aurkitzen zan garai aretan. Eta bein baiño sarriago urten bear izan eban apaizon alde.

Eskumatarrak ziran onetan kalterik andiena egienak gure apaiz euzkaldunen aurka. Eleizxerarkia ta apaizak be bai.

—Zelan leiteke gero —iñoen arrituta lez— zelan leiteke "Santa Cruzada" ren aurka egitea?

—Santa Cruzada dala guda zantar ori? —Zuzentzen dabenaik geienak masoiak dira. Erriak austu dabez, millak eta millak il; 16 apaiz euren artean.

Aita Roman Urtiaga karmeldarra, Zaldibarko semea, Larrean lau urte neure zuzendari izan zana beste askoren artean.

Pralle-jantziaz ioian Etxanotik Larreara mendiz-mendi. Gudariak oratuta Larreako konbentuko orma-kontran il eben kanpoko aldetik. Gudari bateri ba-diñoto: "bota egiozu zuk tiroa" - "Ezin dot, ez naz gauza. Iru urtetan euki neban zuzendari". Orduan beste batek bota eutsan. Lur-ganean itxi eben. Bertan lurperatu eben geroago, ta an egon zan urte mordoia. 1947^{garren} urtean eroan gendun bere ikasle izanda-

ko karmeldar batzuk andikiro ta ondoren meza esan bere alde. Ta zenbat olako.

Millak eta millak espexetan zigorrak artzen; euren artean abade ta pralle mordoia iges egin bear izan eben eta beste asko barriz il, auzirik egiteke. Au al'da Cruzada?"

AURREAN ERABILIAK

Olantxe jokatu genduan bildurrik barik urriñetako lurraldeetan aurkitzen ginanok. Nik lerro oncin bidez diñodana egiztuzeko, naiko oraintsu argitaldu dan "HISTORIA DE LA GUERRA CIVIL EN EUZKADI". Liburu bi dira, apaizai buruz itz dagienak. Papera apain-apaña. 400 bat orrialde liburu bakoitzak. Ikusgarria benetan asieratik bukaera arte. Eskuratu egizu. Ez zara damutuko.

Idako, espexetan egondako ta erbeste bidea artu bear izan eben apaiz asko, bai abadeak, bai pralleak, ezagunak nireztat. Oraindik asko bizi dira. Beste batzuk mundu obero joanak dira. Duiñak, prestuak, beti gomutan eukitekoak danak.

GAURKOAK

Gaurko gure apaizak, bai abadeak, bai pralleak, euren aurrekoen bidea darraie.

Gaurkoak be aurrekoak lez erri-maitaleak dira ta erriak be maite dauz.

Gure apaizak erlijio-zaintzalle zurrak izan ziran eta gaurkoak be bide bera daroe.

Erriaren kultura, folkore, izkuntza ta eskubideak zaindu-eragiten punterengo agertu izan dira. Erriak ezin aaztu au.

Azkeneko urte oneitan ikusten dan aurrerapidean zati andia dauke apaizak, bai abadeak, bai pralleak. Kultura ta jakintza-gaietan batez be eurek aurrenengo. Zenbat liburu eder-mamintsu ta sakon, zenbait gaitz. Liburuok aitatutzeak geiegi luzatuko leuke idazlan au.

Euren izenak eta eurek sortutako ta zuzendutako aldizkariak gogora ekarri daiguzan.

* * *

Euzkaldun apaiz idazleak danak ezpa dira be.

Axular, P. Zamarripa, Azkue, Eguzkitza, J. Ibargutxi, G. Manterola, M. Lekuona, J.M. Lekuona, A. Arrinda, B. Latiegi, Z. Artzuaga, L. Jauregi, L. Egia, D. Agirre, B. Garitaonandia, Jokajortajarena, J. Ariztimuño (Aitzol), N. Etxaniz, P. Albizuri, Urtean, J. A. Ugarte, J. Gaztañaga, E. Kortabartarte, A. Onandia, K. Etxenagusia, P. Solozabal, M. Olazar, I. Kerexeta, P. Zelaia, J. Bergaretxe, J. A. Retolaza, Gogorazten ez dodazan beste ainbat apaizen artean.

Eta darraienak beste batzuen artean ordena ez bardiñetakoak: I. Intza, Idatzeder, Manzisidor, Olabide, I. Goikoetxea, Letona, Eluztondo, Basabe, Lertzundi, Lezo, J. Yurre, B. Larraikoetxea, L., Billasante, M. Andrinua, Zabala-Arana, A. Zabala, Iraizos.

Eta Karmeldarren artean beste batzuen artean darraienak: Aita Bartolome, M. Uriarte, Z. Gorritxategi, L. Ormaetxe, D. Agirre, I. A. Goiria, S. Onandia, L. Akesolo, L. Arteaga, P. Atutxa, B. Batiz, M.M. Juaristi, R. Garro, I. Larraikoetxea, Doroteo Abarretagi, P. Elorrieta, L. Baraiazarra, P. Uribarren, J. M. Etxebarria, N. Garate, Pio, E. Barandiaran, L. Arostegi, Abasolo, J. Urkiza, Zubizarreta, eta abar. Euzkal idazle oncin artean izlari bikaiñak be mordoia izan ziran.

ALDIZKARIAK

Jaungoiko-Zale, Ekin, Zeruko Argia, Anaitasuna, Karmengo Argia, Karmel, Olerti, Euzko Gogoa, Euzko Deia, Gure Mixelaria, Jaunaren Deia, Goizalde, Auspoa, ZER. Arantzazu

Aldizkariok sortu-zuzendu ta idazlanez bete ebezan.

Erriak ondo be ondo ikusiko dau egunen baten bere apaizai dautsen zorra ta gaur batzuk euren lana ontzat ezpa dauke be, egunen baten txalotuko dauz.

Aintza, itzala, begirunea ta esker ona gure apaizai.

GOIRIA

ALDE DAUSKU

L n aukera larregi geunkan abadeakaz eta orain gitxiegi. Urte asko ez dala, gure elizatean be abade bi izaten genduzan eta, orain, bat eta bera joan-etorrian.

L nago abadeak astitsu bizi izaten zirean eta elizkizun ederrak egin oi genduzan igande atsaldeetan be, autortegian jesarteko astia be izaten eben eta orain, arrapaladan dabiz batera ta bestera: Mezea esan eta arin beste tokien batera beste Meza bat esaten.

L nago, abade asko genduzanean, eta elizara eltzeko be orain lako bide ederrik ez egoanean ez iñok belbillik ez eukanean, baselizatuetan etzan egiten mezarik eta, orain, gogoa dabenak, beintzat, euren elizateetara joateko aukeraz ganezka direanean, ermintta guztietan be mezak.

L nago, oindiño urte asko ez dala, erriaren andiko muxurreko baso ta mendietatik be erriko elizara eltzen zirean, jaiero, bero, euri, garo, basa naiz edur eliztar guztiak, siñis-men biziko kristiñauak zirean-da: Orain, ostera, fedea otzitu dan ezkerro, ba-dakigu zer jazoten dan.

Orain, abadeak, ez dauke, ba, mezea alde batera, ezetari-ko elizkizunik egiteko astirik, ez autortegian damutueri itxarroteko astirik, ez beste ezetarako astirik. Ala bai?

Gure elizatean (parrokian) be, joan-etorriko abadeakaz gabiz aspaldiko urteotan. Gotzaiñaren ordezkioa zanez, naiz-ta bertan bizi izan ez, idauan bederatzi urtean ondo baiño obeto otseindu izan gaitu Erremitteria'tar J. Mari jaunak, baiña alde bearra izan dau, gurearen aldean asko ta asko bere eliztar ugariagoak direan lekurako aukeratua izan da-ta.

Beti bere tamalgarria izan oi da aldekerako agurra, batez bere alde egiten dauskuna gogoko adizkidea, laguna, etxekoa edo ongillea dogunean. Gogo-gogokoa genduan, ba, guk bere, Aiangiz'ko eliztarrok, geure abade jauna eta bai berak eta baita geuk, tamal aundia izan dogu aren alde-bearraz.

Emengo eliztarrak, guztiok izan dogu etxeko, ta sendi bat lez izan gara aren inguruan guztiok.

Alde dausku, ba, maite-maite ta gogo-gogoko genduan J. Mari geure abade jaunak, guztiok tamaltasunez itxirik. Joan dan lekuan, Ondarru'n be, gogoko izango yaken uste osoa ba-dot. Jainkoa lagun bekio.

Aurre-Apr aiz 'ek

JAIO NINTZAN ERRI MAITEAK

Arteaga ni jaio nintzan erri maiteak dei dagist oldozten dodan bakoitzean, ta, aren Atxarre-alde ta, Ereñozarpeak, lilluratutzen nabe gogoz bertaratzean.

Argi izpirik gurenenak dantzatzetzen dira nire oroitzamenen ikuste, gogo barruz; ta, or noa aldizka erriko iturrira, aintziñako ikuspegiatarra begiratu.

Maitezko itzultzea asierako nirera, goiberadun etenaldi eta negar-malkoz barriro datorrena izana berbiztera, orduko lagunkide ta bizi izandakoz.

Orduko gazte-egun ederrak datoz gora, itxaropenezko ameskizun bidegarritz, bein ta barriz datoz bai nire biotz altzora, maitetasunezko eragin gomutagarritz.

(1989)

Muniategi-tar Sabin

APURKA

Apurka nai neuke bai mundua eskuratu, ikuspegi eder bakoitzetik zerbait artu; ta, egunik egun, maitasunez zorreratu, Izadiaren agerpenak sakonki, gogartu.

Ibil baiño geiago nai neuke egin egan, gure begietatik izkututzen dan edertasun ori, pozik biotzeratu, tinkoki ta legun, goi ta lautadaz Jaungoikoarenean.

Itxas alde, erri orotan, bidari izan, ta, goiz bakoitzeko zerupe ezberdin baten, goiz sortze oro, maitez, agurtu neure baitan.

Aizea lez ibili norabako joanean, orriz-orri, gauzak samurki belarrirutzen eguzki ta itzalpetako gozamenen.

(1989)

Muniategi-tar Sabin

Udara gau bero batean, euzkia sartu da sartaldean, itzalak argiaz nastutzean itxasoaren osertz urrunean.

Gaubidezko ederpe gelsua, kirkirrak ari dira ozenki,

ta, ugario mundu itzartua klin-klon, osin ertzetan kantari.

Illargizko zerupear nago, euzkia urperatzera doala geroago ta, urrun-urrunago, gorritzaturik osertz egala.

Erriko argiak dakust dizdiz, mendi artean ain ikusgarri, lotarako bidez zoragarri atsedeen-gogoa sortaraziz.

(1989)

Muniategi-tar Sabin

SINAI'KO

GOIRIA

IRUDI BAT

Irudi eder-andi bat jasQ eben Rusia'kQ agintariak YwangorQd errian Volan ibai-ertzean. GizQn errime baten irudia da ta ukabilla itxita ta jasota zeruaren aurka zerbait esan gura dauala dirudi; Judas Iskarioteren irudia da. Ezbaian egozan Satanasi, Kaini ala Judasi jasQ. Azkenik Judasi jasotea erabagi eben. Judasek mundu osQan daukan irudi bakarra izango da seguru askQ.

Gorputz-begientzat irudi bakarra izango da nQski, baiña Satanasi, Kain eta Judasi jasQtakQ irudiak millaka ta millaka izango dira ez ikusteko eran. Millak eta millak bai damQtse gurtza gaur egunean mundu osoan.

* * *

ARROKERIA

Orra or lenengo maillan Satanasek pekatua: arrQkeria. GizQnak arrokeriak putzituta Jainkoaren gainetik jarri gura izan dau. Bere aurrerapideagaz arrotuta Jainkoa Bera itsutu gura leuke.

Buru arroaren pekatua da Satanasek ta buruko gexQa bildurgarri ta kaltegarria da. Eta orra-or Kainen pekatua be: bekaitza ta gorrotoa. Gaurko mundua ez al'dago Kaini jasotako irudiz beterik? Goietan dagoanak beetan dagQanaren gQorrotoa iruntsi bear dau; jakitunak ez jakiñarena; aberatsak beartsuarena; erri batek beste erri batena.

*

GAURKO JOKERAK

Or dago orobat agirian eta danok ikusteko eran Judas'en pekatua be: saldukeria, dirukQkeria. Gaurko munduan dirua da askorentzat lena; gauza guztien ganetik dago dirua.

Oker andia egiaz.

Guzurrezko irudiak jasQ dira gaur munduan. ArrQkeri, bekaitz saldukeri ta gorroto-irudiak. Eta mundua zoriontsu bai? Ez; ostez len baiño zorion gitxiagQ dakusgu gizartean. Atseginkeri-ta andikeri - billa dabil gizona beste gurari ta ametsen ganetik.

XarlangQa (erbi-txakurra) erbiaren atzetik lez dabiz gaur gizQnak gQrputzari atsegin jakQna eskurati gurarik.

Makin-erbia zer da Asmakizun bakan bat. Lan andirik ez daukan gizonen kirola da geien baten. Ez da xarlango bati bizkorrago egin leikeon erbirik. XarlangQak beti erbi batek baiño bizkorrago egingo dauz kilometroak. Gura dauanean atzean itxiko dau erbia.

Erbi bat izten dabe jolas-tokian eta xarlangoa bere atzetik; obetQ esan xarlango mQrdoa. Bizkor-bizkor dQa erbia; zorratuta lez xarlangoak bere atzetik. Arrapau bear dabe; ur-ur dagoz, baiña geitu egiten dabe argi-endarra ta erbiak barrirQ be aldia, aurea artzen dautse.

Xarlangoak bere atzetik beti. Argi-endar andiagoo orduan be; tximista lez doa erbia, bere atzetik xarlangoak, bere ganean. Ezer ez dakuse xarlangQak; ezer ez dantzue: ito-bearrean doaz baiña ezin dabe atrapau erbia. Egin-alak egin baiña alperrik.

Gaurko gizonak be ezin dabe atrapau, ezin dabe eskuratu zoriona. Ez al'da egia? Euren aurre-aurrean dakuse zQriona, dirua, atseginkeriak. Aurrera... aurrera... aurrera eskuratu arte... ta eskuratu dabela uste dabenan iges dagitse eskuetatik. Eta alan be aurrera diardue auren amets zoroan.

Dirua eskuratzeko lagun urkoa zapaldu dabela? Ta zer? Aurrera. Gorputzari atseginkeriak emotearren jainko-legea ausi dabela? Ta zer? Aurrera. Ta azkenean ibilaldia amaitu bear dabenean, illobiaren aurrean aurkitzen dira.

*

AMARKUNA

Auxe jazQ oi jako Sinai'ko Amarkunari gor aginda amets zorQak jarrai gura dauazan gizonari.

Aztu egin dau egi andi au: Oraindik zutunik dagQ Sinai Mendiko Amarkuna! Zutunik gaur be Jaun Egilleak bertatik jaurti eban abots zQli-gQrena: zure betikQ elburua ez da jolasa, ez da atseginkeria. GogQan euki egizu Qgeigarren gizaldikQ gizon Qrrek: Jaungoikoa ez da jQlasa, Gizonaren bizitza ez da jolasa. Gaur be zutunik dagQ Sinaiko Amarkuna! Gaur be zutunik Sinai Mendia!

Au diñQ gaurko gizonak: Amarkuna gauza zarra da, joandakoa da. Gaur ez dau indarririk, ez egokitasunik. Amarkuna barriztu egin bear da. Aldatu.

Ez daigun atzipetu geure burua. Egia esan, gaitz askQk eta andiak inguratu ta estutu gaitue, baiña guzti au zuzentzekQ ez da Amarkuna barriztu ta aldatu-bearrik; bete egin bear da. Amarkunak ez dau errurik; geure okerrezkQ jQkabideak dau errua; geure kristautasunikezak.

Au diñQ KristQk Amarkunari buruz: "Ez uste izan Legea ta PrQfetak kentzera etorri nazarik; kentzera ez naz etQrri, betetzera baiño". Beraz KristQk ez eban kendu, ez eban baztertu Amarkuna, bai osteria indartu ta biziagotu.

Eta bere beste itzQk: "Bene-benetan diñQtzuet: Legeko i bat edQ izpitxQ bat galdu baiñQ lenago ezerezutuko dira zeru-lurrak, dana oso-QsQrik bete arte."

Amarkuna barriztu? Gizonen eskuetan ba legie bai, baiña zorionez ez da orrela. Zer egin? Amarkuna ez ukutu, ta geure kristau-bizitza arakatu ta zuzendu.

Geure kristautasuna barriztu ta aldatu. Mundua barriztu geugandik asita, geure bizitza barriztuta.

Sinaiko Amarkuna 'zutunik dago gaur be.

Aurrera bere bidez Jaungoikoaganutz, betiko garai-peneruntz.

JUAN ABANDO URREXOLA (1885-1946)

Bilbo'k sortu izan dauz gizaseme argi ta erneak. Politikan naiz letretan. Eta abertzale erpiñekoak, euren lurra, oitura, lege ta izkuntza gogotsu maite izan dabena. Orrein artekoa dozu Abando jauna be.

Bizkaiko uriburuan ludiratu zan, 1885'ko otsaillaren 8'an. Ementxe emon eban gaiñera, sendikoak lendik ekarren lan-bizimoduari lotuta, bere bizitza osoan. Joe- ra ta ekandu oneko agertu izan zan beti etxean eta kanpoan bere lan-artu-emonetan. Ementxe il zan, azke- nik, 1946'ko maiatzaren 6'an.

Nik onela idatzi neban baiñola: "Arima eder bat zuen, eta barru jator ori ustutzen algindu zan bere euskal idatzietan. Naikoa idatzi zuen, "Euzkadi"-n batez ere, 1930'tik 1936'ra bitartean. Eder zitzaizkion olerki arin laburrak, biotzez eta jakituriz oretuak. Onelako mordoak dauzka bolara artan Bilbao'ko eguneroko apai- ñean argitaratuta. Itz-lauz ere orobat egiña duzu. Mere- zi luke, beraz, aren lanakin bilduma eder bat osatu ta argitara ematea" (*Euskal Literatura*, IV, 76 o.).

Bere gurasoak, aita Arrieta'koa ta ama Zamudio'koa, euskaldunak ziran. Lenengo ikasketak Bilbo'n eta Zamu- dio'n egin zituan; geroago merkantil maisutza ikasi eban, eta ikasi oneik amaitu ondoren, bera aitak Pasaiko (Gipuz- koa) burdin-ola batera bialdu eban burdiñea urtzen ikasi egian. An moldekaritza bakarrik ez euskun ikasi, baita bertsoz zaletu be. Atsegin jakozan an inguruetako bertsolariak (Txirrita eta besteak), batzar-leku ta sagar- dotegietan orretan jarduten ebenak. Orduan agertua nunbait lendik ernemin eukan euskal bertso ta koplata- rako griña bizia.

Ospe aundikoa zan Bilbo'n. Primo Riberak, 1928'an, diktadura jarri aurretik, Bilboko Udaletxeko ziñegotzi abertzalea izan zan, baita geroago be 1931-1936 bitar- tean. Olerki-mordoa idatzi eban garai onetan. Lauaxeta olerkari bikaiñaren adiskide miña izan zan, onek biz- kortuta erderaz ta euskeraz, ainbat idatzirik. Erderaz- koak "Egaz" izen-rdez emon oi ebazan eta euskeraz- koak "Erletxue"-z. Bilbo'ko "Euzkadi"-n, eta kirol-gaiak "Excelsior"-en datoz.

Kirol-zale amorratua zan, izan be, Abando. Berak eratu be egin ebazan garai atan entzute zabala lortu

eben txori abeslarien konkurtsoak, Egazti txiki orrein abesti-zale, kantutik ezagutzen zituan zein txori zan edozein zugatz-adar puntan kantari egoana. Arima gozo, samur ta eztiaren ezaugarri dozu, dudarik bage, goizero naiz arrats-beran txori txirularien jardunez barrua dar- daratu oi dauanarena.

Eder zituan era guztietako kirolak, goitik asi ta bee- raiñokoak, ziba, dantzari, turrungilla ta tronpo ta abar. Orrek biztu ta indar-azteko erakundeak sortzen alegin- du jakun; Bilboko Kirol Klub Barria, berak ibillian jarria da.

OLERKARI

Ederrez jantzia dago izadia. Edozein baiña, ez da gai eder ori jasoteko. Ederraren susmoa bai ba-dogu; ez dakigu alan be bera xurgatzen, Gurutzeko Jon deunak edo J.R. Jimenez'ek legez. Ez dozu zailla, itz-lauz jar- dunik be, lirikazko koplaxoren batzuk, noiztik noizera, alai-sakon ta eder kantatzea.

Erletxue'k onan egin ebanik ezin ukatu. Ona 1931'ko azaroan "Euzkadi"-n argitara emoniko "Erri-eiztariai" deritxon lanaren amaieran demoskun zortziko txikia:

Ai, erbi kazeru!
Oi dok umoria!
Mendiko erbija baño,
sukaldekua dok obia.
Nere emazte maitiak
sarritan esaten daustena:
A, zelako lo-aldia...
gaur galdu dozuna!

Emen bada irudimena ara ta ona doana! Euskaldun jatorraren bertsorako buru-indarra, izan be, artega ta urduri tximeleta lez dabilkigu. Or bertsolariak emendik ara kuntuan jausi bage zapart egiten. Or dogu erbitan dabillen eiztaria; pozik doakigu txara ta oiana zear. Iñoizka erasten dau zerbait, baiña beste askotan uts, ez dau ezer eizatzen. Eta olerkariari sukaldea jatorko buru- muiñera, ta emazteak sarri zentzun aundiz begietara

emon oi dautsona. Bai, zerbait ekarriko ebalakoan, goizetik ibilliagaitik loa galdu besterik ez dau egin.

PQesiak, Qnak izatekQ ta antQIQjietan illezkQrtu, beitez laburrak. Gerkar eta latindarren lan pitin ariñak, egalari dabiltz gaur bere; luzeak, ostera, iñok ez ditu irakurten. Abando'k ba-ekian Qlakoak QsQtzen. Ona mQdu ortako bat, "Otz gaiztua" diñQtsona.

"Zuaz itsas aldera,
otz gaiztQ, begi baltza!
Lorai itxi eiezu
jantzi daien baratza!

Lotan dagoz zelatan
eder diran liliak;
txori barik dakustaz
zugatz ganekQ orriak.

Urrezko goiz argia
ikusit gura dQgu;
mendi eta latziñak
bediz udabarriztu!

Eguzkia bai dabil,
baiña Qdeiak nagosi.
Otza, laga egistak
dakustan oztin ori!

Geure gogo minduak
udabarri zain dagoz.
Olako Qrdu baltzakaz,
otz ori, nora zatoz?

Zuaz itxas aldera,
otz gaizto, begi baltza!
Lorai itxi eiezu
jantzi daien baratza!

Olerki mQta ugari dagQz, diñQstazu; ez, nik ez dautzut ukatuko. Bakotxak dau gaiñera bere irudimen indarra, bere ao-xuria. Gerkar Anakreonte'k eta latindarren artean ia danak laburrak daukaz Orati'k, ez ostera Obidi'k. Eta lenengo bi orreinak errez - errez eta edonok irakurten ditu, eta irugarrenarenak ba leiteke ainbestek irakurriak ez izatea.

Erletxue'k eiotakQ au osQ txairoa dozu. Gozo-samurra

mamiñez eta liraiña jantzi dautson sQñekez. Itxas aldean batez be bizi da aizea, begi baltz dana. Olerkariak barriz lilitegi pQnpox eskertsua dauka bere egQitza ondoan. Aizea, itxas bazterreko arri urdin ta zugazño arteak itxi ta, bekaitzez urturik, lili artean sartu jakQ.

Negua dok ire arQ, egik orduan kurrinka... Baiña ba-dator udabarria; lorak asi dira ernemintzen, bego urrin maitasun otza, bai bego urrin ire begi baltza! Zelatan dagoz lQrak noiz itxartuko, zugatz gaiñeko orri jaijo-barriak be txQriz noiz beteko! Bai, lora, txori ta gizaki, urrezko gQiz argia nai dQgu ikusi... Laster udabarrituko dira mendiak eta latziñak.

Gora begira naiagok. Eguzkia, aizta negu, ibilli dabil goiak zear; baiña oraindik Qdeiak eta laiñQak, ezin etsiz, eguzkia estaltzen. Eta i be bai, Qtz gaizto! Itxi egidak oztina ikusten. Ez, ez adi gaiztQa izan!

Burruka onek samiñetan ipiñi dau olerkaria. Landa, zelai, mendi ta moiñoak udabarri zain dagozan legez, olerkariaren gogQ minduak be udabarriaren gozQtasuna Qpa dau. Otz gaiztQa, alan be, ordu baltz Qrreitan Qlerkariari gogait-eragitera...

Ez, Qtz gaizto, begi baltz! Laga eistak baketan. Edo-ta erakar nagik samurtasunez, itQ-itQka mendira igQkeran lez. Baiña Qbe, oa itxas aldera. Nire gela azpiko kurlQiak, arrats-berako laiñQak moltzo egitean, txio-txioka, garraxika doaz errecondoko kañabera artera. Oa i be itxas ertzera, intziri egik angQ aitz-artean...

Erletxue'k ba-daukaz luzeagQ batzuk be. Nire "Milla euskal olerki eder" -n dator bat. Luze samarra, "Kampion Maitiari" deritxona, ta 43 bertso lerro daukazana. Irunan irunan lez doaz estrofak, sendo ta errime egiñak. Onela diño asieran eta amaieran:

"Naparroa'kQ urretxindorrek legetxe
—maitasun miñez gauan izarra kantari-
gurean bardin egQn zara abeslari!"

Diñoenez, erri sendo zindoak izaten dira sentipenak adierazten samur eta gozoenak. Orreitako bat dogu Erletxue.

AITA ONAINDIA



MENDIAK

GORBEIARI IGOERA

Mendiak atsegin jataz eta maite dodaz baña ez naz mendizalea, alan guztiz bere, Gorbeia igoeraren gurari-az aspalditik bizi izan naz eta onegaitik edo aregaitik, eziña egin jatan Gorbeiara igotea.

Aurten, nigaz ikasten dabillen taldetxo bategaz, ikas-taroa amaitzean, Gorbeiara igotea eratu genduan edo obeto esanda nik erantsi neutsen nire guraria.

Guretariko bik, Gorbeia mendia ezagutzen eben eta gure gidariak izango litzakezela erabagi zan. Nire betiko ametsa azkenez betetuko jatan.

Eguna eldu zan, gure gidari-ek bidegalluat-az aolkatu ginduezan eta egun eder batez gozaturik, Pagomakurreraño berebillez joan giñan andik igoera lasaia egiteko asmoagaz.

Naiz eta egun berotsua izan, ango aizearen laguntzaz oso ondo ibiltzen zan eta ikuspegi eder aregaz pozik eta krrez Arrabako landetara eldu giñan. An, argazki batzuk artu genduzan eta barre algara baten Egiriñaoko aterpetarantz abiatu giñan.

An egoan zaindari batek begi-onez, ura eskeiñi eta aterpe bat erakutsi euskun oso zainduta egoala egiztatuz. Andik eta gure ezker aldean Egiriñaoko baselizata-xtoa izten, kolladotik Aldamiñospeko "Pluviometrora" igon giñan erdi nekaturik. Batzuk, Gorbeiako kurutzeraño igotea larregi zala, esaten asi ziran baña gure begi aurrean euki eta ez ikutu be gogorra zan, orregaitik azken indarrak bilduten eta arnas-estuka kurutzea goratu genduan pozez beterik.

Ama birjiñari otoi-etz bat egin ostean amaiketakoa egin genduan Kurutze ondoan dagon "mesa de orientación" deritxona ikusten egon giñan, zaartuta egoan baña oso interesgarria egin jakun. Egund batzuk geroago, Frantzian egiña zala eta tontorrean 1931.urtean jarri

ebela jakin neban. Mai borobil onek 106 mendi biltzen dauz eta edozein mendiren izenaren zuzenbidea begiak jarraitzen badozu, antxe, zure aurrean mendi ori agertzen da eguraldi ona ta egun argi danean.

Kurutzea, irugarrena zanik bere ez nekian. Leenengo 1901.urtean zabaldu zan baña zutik, illebetean bakarr-rik egon zan, ekaitza batek lurreratu eban eta. Bigarrena, 1902.urtean eraiki eben eta bariro 1906.urtean jatzi zan. Ezagutzen doguna, bigarrena baño zazpi neurkin txikiagoa da eta Eleuterio Goikoetxeak eraiki edo jaso eban.

Tontorretik jatzi baño leen, gizon bat ikusi genduan, gizon eldua zan, berak esan eban ez larogeitabi edo larogeitairu urte ebazan eta gu baño gitxiago nekaturik egoala irudian.

Naiz eta mendizale itxurea izan, arritu giñan eta bera oso begikoa urbildu jakun. Orozkokoa zan eta agurrak egin ta gero, guda denboretako goraberak azaldu euskuzan, trintxereak edo euren ezaugarriak be erakutsi euskuzan, gero, gu euskaldunbarriak garala eta Bizkaiera ikasi dogula jakitean poztu egin zan. Euskerr-ri buruz berbetan egon giñan eta gure eritzia asko atsegin jakon. Orozkokoa aita Letona nire laguna zala esan neutson eta berak lagun aundia ebala esan eban eta aspalditik ikusi ezaban ezker berarentzako gorantziak emon eustazan. Nik emendik atsegiñez eta biotzez bialtzen deusudaz Aita Letona'ri.

Gizon jator orren izena Txomin Epalza da eta ezagutzeak asko poztu ginduzan.

Oso alai asi giñan jatziten, barrez eta abestuten, egund zoragarria zan benetan eta beste egund baten itzuliko giñanaz zin egin genduan.

PALMI

EUSKERAZALEAK

(Bizkai'ko euskerea)

IKASTURTEA

Asten diranak, len asiak, aurrera doazenak eta Alkar-izketarako ikastaldiak.

Izena emoteko orduak:

Goizean: 10'etatik ordu 1'etara

Arratsaldean: 5'etatik 8'etara (Zapatuetan ez)

Colon de Larreategi kalean, 14, 2a, eskoia

Tel. 423 53 22. 48001-BILBAO

JAUNGOIKOA GABERIK, EZER BERE EZ

Frantziako Iraultzaren aurrean Europako estatu danak erlijiodunak ziran. Naiz katolikoak, naiz protestanteak. Errege batzuk euren tituloei Eleizatik etorritako beste batzuk erantsi eutseezan. Adibidez Frantziako Erregea "Txit Kristaua" zan; Españakoa "Katolikoa"; Ungriakoa: "Apostolikoa" ta Inglaterrakoa: "Fedearen Aldezkaria".

Frantziako iraultzalleak erlijio katolikoa eragotzi ebe-la jakiña da. Andra Mariaren Eleiz Nagusiko (Notre Dame) aldare batera neska lotsagabeko bat jaso eben ta Arrazoi Jainkoemetzat gurtu. XIX-garren mendeak ikusi ebazan bQrroka luzeak, gureak be bai, ia estaduak erlijiodunak izan bear eben ala ez. Baña au laterri katolikQetan bakarrik, Qndorioetatik ikusi geinke lez. Gaur Frantzia, España ta Italia laterri erlijio gabekoak dira. Ingalterra, Noruega ta Suezia barriz, naiz ta protestanteak izan, erreñu kristauak dira.

Egia da igarotakQ aldietan botere bien artean (lurrekoa ta arimetakoa) naste bat egQan. Apezpiku gudari edo agintari ta enperadore sakristauak egQzala edestiak erakusten dauku. Gaur gauzak argitu dira. Ia iñun lurreko agintariak ez dabe izendatuten apezpikurik. Bere txandaz, apezpiku ta abadeak ez dabe artuten erriQ aginte-lanetan parterik.

Auxe ona da. Egoera onetatik baña, uste okerra sortu da. Batzuei jaramon egingo bageuntse, erriak ez dabe bear JaungQikorik. Ez euren legeetan, ezta be euren ekanduetan. ErljiQa gizaseme bakQtxaren arazo utsa dala diño. Bere barruarentzako gauza da. Ta onela katoliko askok pentsatzen dabe Eleiz Amaren Irakaskuntzak aurkako irakatsi arren.

XIX-garren mendean gure asabak izkillua artu eben eta mendira joan ziran Jaungoikoa ta FQruen alde bQrrQkatzeko. Gaur, JaungQikoaren legea ain dQgu aaztuta ze edonun daukoguz "CentrQs de Familiar" bizitza barriari oztopo ipintzekQ ta aur-austea piztuteko. Laterri laikoa dogun ezker...

Bakotxak bere erlijioa aukeratu leikela ona da. Baña onek, erlijio gabarik, Jaungoikoagabarik, laterriak bizi leitekezala ez dau gura esan.

PlatQn ez zan kristaua. Ba orain ogetalau mende dirala "erri oso-osQarentzat, jainkozko zuzendaritzari aipamena, naitaezkoa dala" iñQan. Arazo Qnetan sakQnduaz, geituten eban: "gizasemearen etorkizuna bide bi Qrrei jarrai al jake: bata, Jaungoikoari jarraitzen dautson zuzentasunari jarraitzea ala zuzena danari ez jarraitzea, JaungQikoak utzirik ta zigQgarri emonik egQtea" (Legeak IV-garren liburua).

Oraintxe liburudendetan liburu eder ta interesgarria agiri da. "JaungQikoaren Aukera" deritxo. Lareun Qrrialdetan Parisko Len-apezpiku, Lustiger Kardenalak, erantzuten dautse kazetari bik egiten dautsoezan, gauza askori buruz, itaunei. Erantzute sakon eta argitsuak benetan!

Bereizten dau zati-eziñaren ta notiñaren artean. Ba iñQan BQetius'ek: "zati-ezin arrazoiduna, notiña da". Baña Lustiger Kardenalak osotzen dau: notiña iñorekin alkarganatuteko gauza da. NQtiña JaungQikoakin alkarganatuten da Gizon guztien Jaungoikoakin alkarrizketa onek gizon guztien artean berezko alkartasuna dakar. Orregaitik nQtiña alkartasungarria da. Zati-ezin bakotxa baño bere nagusiagoa da. Gizartea ez da zati-eziñen sail utsa.

Zati-ezinkeriak —jarratzen dau Kardenalak— zati-ezin bakQtxari paperezkQ eskubiderik baño ez dautso emoten. Au da: bardintasunaren erabaietz batek, eskubidearen benetako babespenik ez dau gQgQrtuten.

Laburtuz: JaungoikQ gabarik ez dago gizaseme-alkartasunik, ezta zuzentasunik, ezta be askatasunik.

Ba ekien au, agintariei esaten eutseen: "danak Jainkoak egiñak gara zuek ta gu ere", gure asabak.

Ondo etorria erligiQ aukeratzekQ askatasuna. OndQ etorria be Eleiza ta Laterri artean bereizpena. Baña Jaungoikoa uzten ba dQgu ez dQgu egingQ ezer be onik. Danak JaungQikoak egiña gara ta.

KARLOS IBAÑEZ QUINTANA

SANTUAK

LOIOLA'KO INIGO'REN LORATXOAK

PARIS'EN IÑIGOREN LENENGO LAGUNAK

Zelan aurkitu ebazan Iñigo'k lenengo lagunak, auxe bakarrik esaten deusku berak, gauza jakina zalako...

"Garai onetan Maisu Pedro Fabre eta Maisu Frantzisko Xabierrekoarekin, jarduten neban, eta oneik biok Gogo Jardunen bidez irabazi nebazan Jaungoikoaren serbitzurako".

Gu, barriz, iturri batetik eta bestetik urak artuta, asko jakiteko moduan gagoz.

FRANTZISKO XABIER'KOA

Frantzisko euskalduna, Nafarroako erreinuan, Aragoi'ko muga zaintzen dagoan Xabier'ko gazteluan jaio zan, 1506. urtean.

Onen aita, Joan Jassu'koa, Nafarroa'ko "Errege Kontseiluko lehendakari" izan zan.

Baina Fernando "katolikoak" Nafarroako legezko erregea, Joan d'Albert bota, eta Nafarroa'ko lurraldea Kastilla'ko erreinuari lotu eutsanean, Frantziskoren aita, bere legezko erregeari leial izatearren, erbestera joan zan, eta an il zan. Bederatzi urte geroago, nafar leialak, frantsezen laguntzaz, Iruñea'ko gaztelua eskuratu ebeanean —Iñigo zauritua izan zan burrukaldi aretan— Frantzisko'ren anaia zarragoak, Migel eta Joan, Amaiurko gaztelua defendatzera joan ziran, eta nafarroako azken zati au galdu zanean, espetxetik iges egin ondoren, Hondarri'ko gaztelua defendatzen azken burruka gogor egin eben. Frantzisko'k, tamalez, bere 15 urtekin amaren ondoan etxean gelditu bear eban.

Frantzisko'k bere sendia sakabanatuta, gaztelua lurrean, Ama Maria AzpilkuetaToa alargun eta bakarrik ikusi ebeanean, 18 urtekin Paris'era ikasketak egitera joatea erabagi eban, armakin ezin zana, jakinduriaren bidez, beintzat, etxearen izena jaso al izateko. Eta Paris'en Iñigo'rekin aurkitu zan.

LOIOLA ETA XABIER

Xabier'ko gazte arrozkoa Jaungoikoarentzat irabaztea asko kosta jakon Iñigo'ri.

Ez ete eban, bada, Iñigo'k, beste gipuzkoarrekin batera, nafartar leialen aurka Iruñea'n borrokatu? Guda ori nafarrak galdu ebelako egoan Frantziskoren sendia guztiz ondatuta, eta gaztelua lur jota.

Eta gaiñera Iñigo'ren oraingo bizitza apal beartsuak, zelan ontzat artu eikean Nafarroako erregeen odola bere zaiñetan eukan Frantzisko Aitorren semeak?

Baina Loiolatarrak, Xabier'ko semearen balio aundia ikusita, onen arimako gazteluaren "sitioa" inguru guztian asi eban. Lenengo, Frantzisko'k maisu irakasle katedra Beauves ikastetxean lortu ebeanean, Iñigo'k ikasle talde polit bat bultzatu eban, Xabier'ko maisu barriaren eskolak entzutera joan eitezan. Ezin izan eban Iñigo'k gauza atsegiñagorik asmatu maisu barri batentzat.

Gero Iñigo'k, Xabier diruz estu ebillela jakin ebeanean, gauza onetan be lagundu eutsan.

Azkenez biak lagun egin ziranean Gipuzkoarrak Nafarrari bein eta barriz belarrira esaten eutsan: "Baina, Xabier, gizonari zer, mundu guztia irabazita be, betikoa galtzen ba'dau?".

Gaztelua irabazteko azken erasoaldia 40 eguneko Gogo Jardunak egitea izan zan, baina ordurako Frantzisko'ren arimako gaztelua Jaungoikoarentzat irabazita egoan.

Xabier izan zan Iñigo'rentzat andik aurrera lagunik maiteena.

PEDRO FABRE, BIGARREN LAGUNA

Iñigo'ren bigarren lagun au, Frantzia eta Suiza arteko Saboia Garaiko erri txiki baten jaio zan, 1506. urtean. Txikitari Alpes mendietan artzain izana. Biotz garbiko gazte lotsatia Paris'era joan zanean. Danentzat oso begiko mutil atsegiña, baiña barrutik larri eta kezkatia.

Xabier eta Fabre laster egin ziran lagun, eta geroago baita biok Iñigo'ren lagun be. Iñigo berandu asi zan ikasten, eta Paris'era joan zanean Fabre'k lagunduten eutsan Iñigo'ri ulertzen ez ebana argitzen, baiña ikasketan ikasle zana, arimako gauzetan laster egin zan bere maisuaren maisu.

Pedro Fabre be Gogo Jardunak eginez Jaungoikoaren serbitzuko bidean jarri zan.

DIEGO LAINEZ ETA ALFONTSO SALMERON

Diego Lainez Soria'ko Almazan errian jaioa zan, eta Alfontso Salmeron Toledo'ko urian. Biak lagun mamiak ziran, eta Alkala'n ikasten egozala Iñigo'ren barri jakin eben, eta biak Paris'era joatean Loiola'koa ezagutzeko

gogQ andia erQan eben, eta Qna non Paris'en zaldietatik jatsi ziranean, Iñigo aurkitzen daben begien aurrean. Onek pozik lagundu eutsen Qstatu egQki bat aurkitzen, baita Paris'eko oiturak ezagutzen.

Diego Lainez gorputzez txikia zan, baina buruz oso bizkQrra; gauzarik gatxenak be, ikasi barik, begiratu batekin bakarrik, ulertzen ebazala, emoten eban.

Alfontso SalmerQn, jakinduri andiko gizQna zan, Biblia eta izkuntza arloan batez be.

Lagun bi oneik, Gogo Jardunak egin ondoren, Jaungoikoarentzat osorik bizitzeko erabagi sendQa artu eben.

SIMON RODRIGEZ, PORTUGALDARRA

Portugal'eko gazte au 17 urtegaz joan zan Paris'era ikasketak egitera, ango Erregearen beka baten laguntzaz. Oso jainkozalea zan, alai eta Qdol bizikoa, baita ikasle ona be. IñigQ bizi zan Saint Barbe ikastetxean jarri zan bizitzen, eta laster onen lagun egin zan, eta Jaungoikoari serbitzeko eukan gogQa Loiolakoari agertu eutsan, eta beste lagunekaz bat egin eban.

NIKOLAS BOBADILLA

1,533 udagoienean Palentziako gazte bat etorri zan Paris'era bere ikasketak amaitzera. Nikolas Bobadilla zan. Gorabera andiko mutilla, itxurakeri guztien areriQ amQrotua, baita nQizean bein kasketaldi gogorrek eba-

zana. Au be Iñigo'k GQgo Jardunen bidez irabazi eban Jaungoikoarentzat.

JESUSEN LAGUNDIA SORTU

Iñigo'k sei lagun oneik bildu ebazanean, danak bate-
ra pentsatzen jarri ziran, zer egin bear eben euren
asmQak aurrera erateko. Eta danak bat eginda asmo
onetara etQrri ziran: lenengo Jerusalem era joateko, eta
gerQ Jaungoiko lanetan bizitza QsQa emQteko.

Baiña orretarako teolQgia ikasketak amaitu bear zira-
nez, Paris'en beste iru urte jarraitzea erabagi eben.
Baina bien bitartean etsaiaren tentaldiak garaitu al iza-
tekQ, gizonak aldakQrrak garanez, egoki izango zala pen-
tsatu eben, zinitz sakratuen bidez euren asmQak baiez-
tatzea.

Eta arazQ au patxadaz aztertu ondQren, onetan bat
etorri ziran: zinitzak iru gauza artuko ebazala: lenengQ
pobretasuna, bigarrena garbitasuna, eta irugarrena Jeru-
salen'era erromes joatea, eta gero arimak salbatzen lan
egitea.

Jerusalen'era errQmes jQateari muga au ipini eutsoen:
Benezia ra eldu, eta urte bete barru joateko itsasontzi-
rik ez ba'eben aurkitzen, Erroma'ra jQangQ zirala, eta
an Aita Santuaren oiñetan belaunikatuta, onek agindu-
tako guztia egitekQ prest egongo zirala.

IÑAKI GOIKOETXEA. S. J.



BIZKAI'KO EUSKEREAREN ASTEA (V)

(BILBOA'KO UDALAREN BABESPEAN)

NOZ?..... 1.989'ko azillaren 20'tik 24'ra.
NON?..... Bilbao ko Eskolapioen Ikastetxean (Alda. de Rekalde, 19)
ORDUA?..... Arratsaldeko 8'retan.

GAIK ETA IZLARIAK

Azillaren 20'an:	Aurkezpena	ZUBIRI'tar IÑAKI'k
	Bertsogintza	MUNIATEGI'tar Sabin'ek
Azillaren 21'ean:	Euzkerazko iztegiak	ONAINDIA'tar Santi'k
Azillaren 22'an:	Basetxeak Euskalerrian	ZUBIKARRAI'tar Augustin'ek
Azillaren 23'an:	Errotak non eta zelakoak	ASTUI'tar Alberto'k
Azillaren 24'an:	Antxiñako euskaldunen egun aundiak	OLAZAR'tar Martin'ek.
	Agur eta urrengora arte	ZUBIRI'tar Iñaki'k.

JEXUS GAZTAÑAGA'K EZ DU ETSI

«Jende askoren zapuzketa eka i duen bidea izan duk Euskaltzaindiarena»

Jexus Gaztañaga Asteasun jaioa dogu.

Apaiza Aizarnan egon ondoren, 14 urte daramatza E ezilen. Ondo ezagutzen du beraz xe i fikietako euskalduna, kezka piska bat u unxeago doaz, euskera gure izkuntzaren eremuetaraino, eta batez ere euskara batua sortzen den muga ez ain u uneraino. 1979'an Euzkerazaintza sortu zuten, Euskaltzaindiaren aurkako akademia paraleloa, euzkera e ikoi eta naturalago bat reibindikatuaz, itzegiten den bezela idazten dena, «H»'rik gabea etabar.

Joera onartu eta oroko aren aurka doaz, zenbaiten eritziz ezjakiñei bidea e azteko besterik balio ez duen euzkera baten alde. Gutxi dira eta baztertu xama ak sentitzen dira, euren ereduak ez du lekurik ikastoletan, laguntza u iak dituzte, baña bizirik diraute, komentzi-menduz eta lanerako gogoaz. Denborak atazoia eman-go diela uste du Jexus Gaztañagak.

—*Esplika ezazu Euzkerazaintzaren so era eta bere filosofira.*

—Euzkerazaintza, izenak berak adierazten du zaintzeko alderdi ori. Euskaltzaindiaren aurka bezela sortua duk. Euzkera batuaren leen bileren ogei urte burura Bergaran beste bilera batzuk ospatu ituen, zer lan egin ziren aztertzeko. Aldez au etik prestatuak zeuden bilera ayek, beraiek (Euskaltzaindiakoek) nai zituztenak agertzeko. Euzkerazaintzako batzuk joan ituen galderekin, eskakizunekin, gauzak beste era batera eraman naian, eta an esan ziten, gauzak orela baldin badaude Euskaltzaindia ez da euzkera osoaren euskaltzaindia, baizik batua orena baka ik, gañontzeko guzia bazte era utzia. Beste talde bat sortuko degu, euzkera e ikoiagoa, euzkera biziaren alderdi guzien zuzpertzale izateko.

—*Ain gaizk ' egin al d tu gauzak Euskaltzaindiak?*

—Gauza guziak ondo egin dituela esango dik, baña guziak ez zaizkiguk ondo iruditu, batez ere batasunaren ingurukoak.

Guziok elkar ulertzeko bideak egin eta bateratu bearra dagoela itsuak ere ikusten dik. Orain, ori egiteko bideak era askotakoak izan zitezkean, eta egin zitezkean astiro astiro, inor mindu gabe eta abar, eta gure ustez, askoren urtez, jende askoren zapuzketa eka i izan duen bidea izan duk Euskaltzaindiarena.

—*Presaka egindako gauza bat al da batua?*

—E rebozua ez duk kontuz kontuz egiten den gauza bat izaten, leen dagoena puskatu egiten duk eta

beste zerbait ja i. Politikan o ela jokatu dela ez zio ukatzerik. O ekin batera izkuntzaren bu uka ere ortxe sortu uen. Euzkal-E ian, errebozua bu uka ere euzkeraren alo era eraman ziten, leengoak zaa ak dira, leengoak atzerakoiak dira, ori autsi egin bear da, esan ziten, eta be ia sortu. O ekin, jato iz euzkaldun diren asko mindu egin ituen, eta oyen artean sartzen nauk ni ere, eta Euzkerazaintzan dauden besteak. Gure izkuntzak desberdintasun aundiak dizkik e i batetik bestera. Bere-zitasun oyek sortu dira artuemanik ezean, eta bateratzea, berdintzea, o ek eto i bear dik elka en artuemanetatik, eta elkar ezagutzetik. I atietan ikusi da ori. Garai batetik bizkaiera Gipuzkoan asko entzuten duk, A ate i atiaren bidez. O ek ez dik esan nai segituan bizkaieraz itzegiten asiko garenik, baña elka en be i entzun, ara joan, ona eto i, a eman geyago izan bertolariekin, bidea ori duk.

—*Zein lan egiten dezue akademiaren ba uan?*

—Batetik, e i-akademia denez euzkera bizia, euzkera itzegiña, joera duk gipuzkera artu eta bizkaiera ere piska bat zabaldu, eta alderantziz, elka en be i jakiñez, eta joera ortako ekintza batzuk egin genizkian ikastoletarako. Liburu batzuk itzuli genituenean ere, aditza batzutan bizkaierakoa ja i genian komila artean, gipuzkeraz ari zenak bizkaiera ere uler zezan.

—*Ez al zerate piska bat baztertuta sentitzen?*

—Dudarik gabe, bidea Euskaltzaindiarena dela onartuta zegok, ori dela erakunde ofiziala, leendik zekarkin itzalarekin.

Joxeba A egi'ri esan nioan, oso itzulpen txa ak egiten dituztela Euskaltzaindia inguruan, baña be iz ere ayei ematen zietela dirua. Proba egin dezagun, laguntza bera eman iezaiozue Euskaltzaindiari eta Euzkerazaintzari eta ikusiko degu ea zeñek obeto egiten duen. Eta batez ere jendearen artean zeñek a era obeagoa duen.

—*Euzkal base ita ak zein akats ditu?*

—Bat ezjakintasuna. Guk zerbait ikasi badegu izan duk base itik atera giñelako. Base in bertan ikastea izuga i zala duk. Nekazaritzan bizi dena egunero mila gauza eskuartearen dituela bizi duk. Txikitatik asten dan base itata eskolaren au ean esaten, ori dena zertarako, nik emen naiko lana ez al daukat bada?

Leenago gañera oso minga ia zena, base ita ak eskolara joan eta eskolan maixu maistra erdaldunek tontoztat jotzea. Leen nekazaritza ikasterako pauso ori

zala baldin bada, bi alakoz edo geiagoz zaildu egiten ziaten. Elkartasuna ere QsQ ga antzi aundikoa duk, baña elkar artzea oso zala zaiok basefitatari. Garai batean bizitzeko bear ziren jan eta jantzi eta dena zenbait etxetan bertan egiten uen, pentsazak zer askatasun ematen zuen besteen bea ik gabe bizitzekQ.

—Zer eskatuko zenioke Euzko Jaurlaritzari?

—Euzkera bizia eta au ekoengandik dato ena, ori zuzperten eta ori indartzen aalegin izuga ikoa egin bea a dagoela. Txikitatik, euzkera eranskin bat ez, bai-zik bizi dutena eta ba utik sQrtuko zaiena izan dadin, batua gerorako utzi bear litzake eta txikitatik beintzat beste era batera jokatu, euzkera biziari ga antzi geiago emanez. Orduak eta orduak guk erderaz ortografiarekin nazkatzeraiño jarduten ginuan, ortografiatzko arauak eta ikasten. Orain euzkal umeei gauza berdiña egiten zietek. Ge a ondoren gure pozbiderik aundienetako bat uen erderaz ortQgrafia ikasi eziñik ibiltzen g^ñen bezela euzkeraz oso e eza zela, esaten den bezela idatzi eta idazten den bezela iraku i. Jaurlaritzak beste era batera aztertu bearke luke, ez «bein batua egin degu eta au au era atera bear degu kosta ala kQsta» esan.

DENBORAK ARAZOA EMANGO OTE?

P. A.

Urtean miloi eta be eun mila pezetetako subentzioa jasotzen dute, akademia bati eustekQ naikQ u ia den dirua. Badirudi bizitza labu ekQ akademia baten au ean gaudela, ja aitzailerik ezean gaurko partaideekin batera ilko dena, baña Jexus Gaztañagak ez du ori uste. «Diru laguntza geiagorik ez dela aalmen aundirik ere ez zeukagu lanerako. Bazekiagu erabat giroaren aurka ari gara-la, a o a o esaten ditek: irabazi dugu. Frankoren denbQran ere Frankok irabaz egin zuela esaten zuen, bai, baña ixil ixilik segi eta segi eginda, denbQrak erakutsi

zuen ez zuela ark a azoi. Irabazi zuen, zapaldu gintuen baña ez zuen ark a azoirik. Arazo Qnetan gauza bera pentsatzen diagu. Orain, QsQ zala duk girQaren kQntra lana egiten jardutea».

EUZKERA DALA TA...

Pozik irakurri degu izparringi ontan, LQrailla k 31'n, Paco Aristi k Gaztañaga tar Jesus'ekin izandakQ elkar-izketa.

Bertan, Euskerazaintza ren sQrrera, nola ta zergaitik izan zan adierazten du Gaztañaga jaunak eta Euskaltzaindia ren jQkabidea aitazten du, «batua» ren arazoan batez ere.

«ARBASOEN-IZKUNTZA-ZALEAK» Elkartea, Qrain sei illabete —G/1249/88 zenbakiz Elkartea-Idaztarian eza-ria— Euskerazaintza ren elburu edo xedearekin sQrtua izan zan; Erri-Euzkera zaindu ta zabaltzeko arekin alegia.

Euzkera arazoaz kezkatuak zeratenoi, aitaturako idaz-lana irakurtzeko aolkatzen dizuegu.

IñQrk gure Elkartea ren berri jakin nai ba lu, edo gurekin ar-emanen jarri, 287130 urrutizkiñera deitu beza.

ARZELUS'tar AMALE
«ARBASOEN-IZKUNTZA-ZALEAK»
Elkartea koa

AMALE ARZELUS ARRIETA
Peña y GQñi, 10-5.º izda.
DONOSTI
D.B.I. 14.987.434

Publicada en El DiariQ Vasco el 14-6-89.

ARBASOEN - IZKUNTZA - ZALEAK JAKINTZA ELKARTEA

AMARGA EN AZALPEN ALDIZKARITXOA

Garaga iia'ren 25'ean gure Aldizkariak lenengo urtea bete du.

Lenengo zenbakian, Euzkera'ri buruzko **kezkak** azalduaz gaiñera, Elkartea sortzeko asmoa edo gogoia, beñepein, agertu genun.

Elkarte oni, Iraila'n, izena eman genion:

ARBASOEN - IZKUNTZA - ZALEAK
JAKINTZA ELKARTEA
E i Euzkera

1988'ngo. Azila'k 21'ean, G/1249/88 zenbakiz, Erakunde-Izendegia'n eza ia izan zan.

Aldi ontan egin degunaren laburpena adieraziko dizuegu.

Urteak zear, euzkera gayean jakitunak diran gizakiekin izandago izketaldien ondorena izan dala ElkarTE au sortzea, adierazi bear dizuegu au etik.

—Ostiralero biltzen gera, Euzkera gaiaren gora-berak astertzeko.

—Euzkera gai dituzten idaz-lanak idatzi eta izpa ingietara bialtzen ditugu. Orain arte gutxitan argitaratu dizkigute. (Zergatik?)

—Idaz-lan auek argitaratu ala ez, aldizkari ontan azaltzen ditugu.

—Iragarpen, irarki, Agintezko Erakunde (Organismos Oficiales), Alder Politiko, Langile ElkarTE, Egitarau e.a.

— NEKE TA POZ

— AMABOST EGUN ERGAIN'EN

Oietan agertzen diran erderakadak jaso ta EUZKERATU egiten ditugu.

—Itz auek aldizkari ontan argitaratzen ditugu eta laster, bakoitza, dagokion Erakunde'ra bialtzeko asmoz gera.

—Aal degun neu ian, Euskerazaintza ta Edili Argitaralea'ren lankide gera.

—Euzkeraren aldizti be antzaren Argi-bidea egin degu.

Gure ekintzaren laburpena au dezute. Egin ditezken egin ez ditugun eta egin bea ekoak, asko dira noski.

O etarako, bein baiño geyagotan adierazi degunez, Bazkideen laguntza bear beata degu.

Laguntza au era auetakoa izan diteke:

Gure bileratara eto iaz, adibidez (au etik 287130 u utizkiñera deitu). Batzar auek, esan degunez, ostiralero izaten ditugu.

Idaz-lanak eginda, eta baita zuen ekintz-asmoak idatziz adieraziaz. (20080 - Donosti - 1067 Bidal-Kutxara biali.)

Guretariko bakoitzak Bazkide be iak erakartzen ere alegiña egin bear degu; Onela, ElkarTE sendotuaz, Euzkera'ri buruz degun iritzia eta asmoak burutzeko era izan dezagun.

Euzkera pizkortzeko beste era bat ere ba'degu. Emen aolkatzen ditugun idaztiak erosi ta adiskide artean zabal-kundea egiñaz.

Oraingoan aolkatzen ditugun idaztiak auek dira:

OÑATIBIA'TAR YON egilea

LOIDI BIZKA ONDO'tar J.A. egilea

LANAK, POZAK ETA KEZKAK

EUSKERAZALEAK euskerea zapalduta eta askoren aurrean lotsagarri lez agertzen zan aldian sortutako alkartea dogu. Ordurik ona, urterik urtera, bere lanak aurrera eroan dauz: Euskerea irakastea, liburuak argitaratzea, ipuin-sariketak, Bizkaierearen asteak, iñoz komik'e sariketea be egin dogu, urtero ateraten dan egutegia eta ekintza guztiak josten dauzan ZER Aldizkaria.

*

Alkarte onen kondairan auxe agertzen da argi: Euskerea zapalduta egoan aldi aretan era bateko lana egiten zala, izkuntzari zor jakon zaletasuna bizirik aterateko eta orain, demokraziaren aldi onetan, euskerearen zati aundi bat, erdia baiño geiago dan zatia, Bizkai'ko euskalkia baztertu dauskuela eta ortik datozen arazoak doguz kezkarrienak.

Lanak emoten dauan poza ez jaku falta eta orregaitik an or emen ikusten dogu euskerea ondo erabilten dauan jentea eta Bilbo tarrak izanik, euskerea dakienak gitxi diralako, non ikasi daben itauntzen dautsegunean, erantzun pozzarria emoten dauskue sarritan: EUSKERAZALEAK ALKARTEAN.

Orra or, lanak, pozak eta kezkek, orra or Eukerazaleak alkartearen bititza.

Gure alkartea osotzen daben bazkideak ez dira milla ta bosteunera eltzen, baiña ortxe-ortxe dabiltz. Guztiak artzen dabe alkargarri dan ZER eta geienak ordaintzen dabe urteroko saria. Sari au kobratzen joatea gatxago izaten da errietan ,eta or ba-dagoz arazo batzuk. Bakoitxak arduratu bear leuke ordantzeko, baiña jakiña, gaurko munduan ardura askoren artean bizi gara eta aitzu be errez egiten dira olako gauzak.

Dana dala, gure Alkartek osasun naikoa ona daukala esan geinke.

*

Ori orrelan dala baieztu arren, ezin ukatu baste gai arduragarri bat: Alkartea osasuntsua izan arren, adifez aurreratua da, edo, beste era batera esateko, bazkiderik geienak ez dira gazteak eta Zuzendaritza-Batzordea aldatzeko egunak etorten diranean, eskariak ugari egin arren, ez da agertzen ordezkorik. Noizean bein egiten dira aldakuntzaren batzuk, baiña gitxi.

Beste alkarte batzui be antzera jazoten jakela eta gaurko giroaren ondorena dala gazteak olako arazoetara sartu nai ez izatea... urtenbide bat da, baiña ez egokia. Gazteak eta elduak guztiak osotu bear leukee ESKERAZALEAK ALKARTEA eta orretarako urtero bazkide barri batzuk bear litzakez. Zarrak, bizitzearen legea alan dalako ba-joakuz eta barriak ez dira ainbeste urreratzen.

LANAK, POZAK eta KEZKAK, baiña gu aurrera, geure bazkideen laguntzaz eta Euskalerrriak edo bertoko erakundeak emoten dauskuen diru-laguntza ugariagoa izan bear leukenagaz.